


Gure liburu dendatan liburu handiak, nagusiak, ikustera ohitzen hasiak garela esan dezakegu, 'ohitu' hitza pixka bat potoloa bada ere.

Joseba Sarrionandiaren 'Moroak gara behelaino artean?' (2011) saiakera izan zen jende askok udarako, udan irakurtzeko, utzi zuen gure liburu zerrenda honen lehen mugaria. Ondoren etorri zen Ramon Saizarbitoriaren 'Martutene' (2012) nobela, ertz askotatik erraldoia, gazteleraz berriki agertu dena. Pentsatzen jarrita, ez ziren kabotaje gutxiagokoak Juan Garziaren 'Joskera lantegi' (1997) edo Joxerra Garziaren 'Jendaurrean Hizlari. (Ahozko) Komunikazio gaitasuna lantzeko eskuliburu' (2008). Beraz, lehendik zetorren ura bere bidetik.

Baina azken hilabeteen -gazteleraz hori bai!-, beste liburu erraldoi bik hartu didate irakurtzeko mahaiaren tokia. Gazteleraz bai, baina gure eremu literarioko argitaletxeek plazaratuak.

Idoia Estornes Zubizarretak bere bizitzako memoriak eman ditu aditzera izenburu luzea duen liburuan: 'Cómo pudo pasarnos esto. Cró-



nica de una chica de los 60' (Erein, 2013). Ora in gutxi elkarrizketa batean esan duenez Ramon Saizarbitoriak animatu zuen lana plazan jartzera. Ulertzen dut nobelagilearen interesa. Ez da bada emakumeen munduaren murgilketa bere kontagintzaren ardatzaren bat? Ez da harritzekoa, beraz, emakume baten ahotsean sortutako analisisa oso interesgarria izatea berarentzat. Egia da autobiografiaren

bidean, eta emakumeen autobiografiaren bidean izan dituela aurrekariak Idoia Estornesek, berea gazteleraz eman zuen Mariasun Landarena adibidez, arazorik gabe datorkit burura.

Ia 600 orrialde dituen liburu honetan hiru zirkulu hartu behar dira kontuan, bere garaian Auñamendi Entziklopediaren bizitzaren erdian zegoen protagonistaren ikuspegian: bizitza pertsonala eta barnekoia, askotan zertzeladaz eta lausotasunez emana, guztia esateko gogorik ez balu bezala; Euskal Herriko giro kulturala, hainbat datu berri ematen dituelarik Entziklopediaren bizitzari buruz; eta inguru politikoa, alde bitan banandua, ikuspegi historikoa eta orokorra, eta pertsonak giroan jokaturiko lana. Berezia egin zait liburua, utzi ezinekoa, baina era berean, kronikaren itxurak gehiagorako bidea ematen zuela iduriko lukeena. Garai bateko argazki paregabea, dena dela.

Iruñean 1936ko uztailaren 18an gertaturikoa azaldu nahi du Miguel Sánchez-Ostiz egile nafarrak 'El escarmiento' (Pamiela, 2013,

510 orrialde) izenburupean. Atal bi izango baditu ere esku artean dugunak oso ongi adierazten du Sánchez-Ostizen lanaren muga zabalak. Atalka irakurri dut kronikaren bidez, dokumentazio zehatzaren bidez, iritziz eta agerpenez eman zaigun fresko zabal hori. Idazle nafarrak egina du bere ahotsa, ironiaz eta sarkasmoz sortua, perspektibaz eta hurbiltasunez, errukiz eta minez, dena batera, nahasmenaren eromenaz jausi gabe. Tonu aldaketa da bere dohain nagusia. Eta begi zolia! Kronikaren gainetik, memoria ariketa nagusia da lana.

Hilketen, zorigaiztoen, beldurren eta mehatxuen artean Miguel Sánchez-Ostizek errukia, batez ere sentimendu sotil hori, agertzen du galtzaileekiko. Minez irakurri dut adibidez 'Tía Amalia y su memoria' (312-316) pasarteak, galdutakoa nola ez den berriro eskuratzeko eta erreprezioak nolako aurpegiak hartu zituen oso txikia zen, eta beraz indarkeriak sona handia zuen, hirian. Detaileen azpitik 'Hiltzaileen garaia' agertzen da bere itzal guztiekin Sánchez-Ostizen kronikan.